

Xabier Alegria

HBko Gipuzkoako Batzarkide espeteratua

Gidoiak aginduta

■ Honelaxe justifikatu ohi da askoren jokabidea. Norberak nahi izango lukeenaren aurka aritzearen karga arindu nahian kasu honetan, aldiz, propio bilatu den aldaketa politiko sakon bat bideratzeko tresna izan da gidoia, pelikula oso bat antolatzeko tamainakoa izan dena.

Izarra izatearen nahikeriak jota bizi den Garzon epaile espainiarrek, Mayor Orejak belarrira diktaturiko gidoiari jarraiki, gidoi txiki batek izan dezakeen indarrak jabetu eta bere pelikula berria estreinatu du. Aurrekoan ETA-HB izan zen, Mahai Nazionalaren espeteratzeari nola edo hala babesa eman nahian. Oraingoan ETA-KAS suertatu da, aurreko pelikulak lortu ez zuen arrakasta politiko oraingoan lortuko duen itxaropenean. Izan ere, bigarren honek zenbait lagun espeteratzearen aukeraz gaindi, *Egin* egunkaria eta irratia isilarazteko biderik ere ireki baitu.

Garzonen auto judizialak abiapuntu argia du: «ETAk bere 30 urte luzeetan zehar, egitura itxi eta konplexua osatu du», bertan direlarik instituzioak, entpresak «KAS-en barne direnak». Beraz, gaur egun ETA-KAS abiapuntu harturik, hainbat eta hainbat euskaldun zigortzeko tresna mugagabea sortua da. Eta areago, euskaldunak banan-banan ezezik, entpresak, elkarteak, antolakundeak...

Espainiar estatuko tresneria errepresiboa berri-zeko premia bizia du. Zergatik? Arrazoi argia da. Bere estrategia politikoak garaipen polizialaren ardatzari atxiki diolako azken 20 urteotan eta Madril-Gasteiz-Iruñeko paktuen bidez, apostu horrekin batera, ezker abertzalea itoko zuela uste arren, helburu hori gero eta sinesgaitzagoa da egunegun.

Arrainari ezinbestekoa zaion ura kendu, bere urtegia hustu. Horrela laburbiltzen zuten apostuaren giltza. Arrainaren aurkako sarekadak etengabeak izan dira eta dira. Beren legeek debekaturiko sareak etengabe erabiltzen badituzte ere, emaitzak ez dira aski.

ETAren eragite politikoak etengabea da. Bere ekimen eta ekintza guztien eragina biderkatzen ari da eta euskal gizartearen konponbide demokratiko eta euskal subirotasunaren aldeko indarrak berpiztu eta berrantolatzen ari dira. Hitz batez, arraina bizi-bizirik eta ura etengabe berritzen ari da, ur gero eta gar-denagoa osatuz.

Prozesu honen bihotza edo birikia delakoan, *Egin* itxi egin dute, isilarazi nahi. Duela 6 urte luze, Bidartekoa gertatu zenean, *erretagoardia* deitutakoa,

borrokatzeko ezinbesteko oinarria, desagertua zela esan zuten. Garaipena eskuratua zutela, alegia. Urteotan horren gezurra begi-bistan, orain erretagoardia hori entpresa bat zela, errotatiba eta antena bat zirela sinistarazi nahi digute.

Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borroka- ren erretagoardia bakarra, aldiz, euskal gizartearen bertan erabat sustraiturik dauden premia eta asmoak dira, antolatutik eta eguneroko zereginetan murgildurik dauden gizon-emakumeak, gero eta gaitasun handiagoaren jabe direnak. Horixe da gure indarra. Horixe espainiar inposizioaren aldekoen deseperazioa.

Kolpea gelditzerik ez da egon. Baina itsu-itsuan jotzera datorrenari iskin egitea eta bere indar itxura hankaz gora jartzeko moduko trebezia badago. Mahaikideen espeteratzearekin gertatu zitzaizen bezalaxe, oraingoan ere urrats errepresibo berri honek ezker abertzalearen gaitasun herrigilea indarberrituko du, gure eragin kortasuna eta gaitasun sortzailea biderkatuko.

Horixe, eta ez ondasun material hutsak, izan zen *Egin* proiektuaren abiapuntua eta bere garapenaren giltza. Horixe bera da, gaur egun, *Euskadi Información* kalean jartzeko gaitasunaren sekretua.

Euskaldun eta libre bizitzearen aldeko grina. Hori lortzeko elkarri emandako hitza. Egunez egun euskal urmaela biziberritzeko iturri txiki, umil, isilpeko asko eta asko isurtzen ari diren ur gardenak.

Gatazka areagotu nahi dute. Urrats txiki oro zigortu. Espainiartasuna irentsi, gureganatu, ala beren legearen pisua gure gainean nozituko dugula. Mehatxua, justiziaren orde. Menpekotasuna, nahi eta behar bezala hornitua hori bai, askatasunaren orde.

Dagoeneko bazterrean gelditzerik, begiralearena jokutzerik ez dago. Ur tanta bakoitza erabakigarria da. Gure aukerak guztiak irekiak dira. Jakin behar dugu itxuren azpian begiratzen. Azaleko sendotasuna baino ez dela PPrena. Ezintasunaren bortxakeria. Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke boterea eraiki nahi duenak eragindako beldurra estaltzeko indarkeria.

Egunez eguneko lan isilean aurrera jotzeko garaiak ditugu hauek. Espainiar harrokeriari aurre egitekoak. Epelkerian ezkututzen den orori gonbitea luzatzekoak. Bide onean goazela jakinik, aurrera bolie! ■

Maixux Rekalde



Adierazpen askatasuna arriskuan

Badakit gauza ugari esan direla *Egin* egunkaria eta *Egin* irratia itxi ondoren eta ni baino jantziagoak diren ahotan, baina ezin naiz isilik gelditu; nik ere zertxo bat esan nahi dut, demokraziaren atzerapen handia bizitzaren ari garelako nire iritziz.

Demokraziaren atzerapen handia, adierazpen askatasunari eraso bortitza egiten diolako non, ekintza horren bidez, gure gizartearen zati handi baten iritzia isilarazten dutelako. Horrelako neurriak diktaduren menpean bakarrik ezagutu ditut beraz, berriro diot, demokraziaren atzerapen handia gizarte osoarentzat.

Epaileak dioten bezala, pertsona konkretu batzuk legearen aurka egin dutelako omen komunikabideak ixte hori, baina delituak pertsona konkretu horienak izango dira eta ez erakunde osoarenak. Horrela behintzat ikasi dugu guk zuzenbidezko estatu batean; are gehiago, pertsona horien delituak ere frogatu egin behar dira eta ez aurretik kondenatu. Adibide hau dakarkit burura: familia batean gaizkile bat baldin bada honek jasotzen du zigorra eta ez familikide guztiek. Gertaera honetan enpresa osoa eta lankideak baita irakurle eta entzule guztiak zigortuak izan dira epaiketarik egin gabe. Guzti hau demokrazi sistemaren barruan benetako zuzengabekeria da.

Beste aldetik, badirudi botere ejekutiboaren menpe azaltzen dela epaileen boterea, sumarioa sekretupean zegoelarik Barne Ministeritzatik zetorrelako informazio osoa, xehetasun ugari horniturik gainera. Esanguratsua den jokabidea eta kezagarria era berean, azken finean indarrezko strategiaren nagusitasuna azaltzen baitu, eta ez dut uste ezer onik ekarriko digunik gure gizartearen elkarbizitza hobetzearen alde daramagun norabide eta ahaleginetan. Komunikabide horiek ixteak tentsioa areagotzen du eta, aspalditxotik, gure gizarteak elkarriketa eta disentsioaren aldeko apostua egina du.

Abbadia gaztelutik



Hasier Etxeberria

Ordu biak aldera hasi dira zaunka *Flash* eta *Gordon*. Sekula ez ditut somatu hain aztoraturik. Gazteluko eskaileretan behera jaitsi naiz, gazteluko hormatzarrak halako zaratarekin behera erori baino lehen. Hantxe ikusi ditut bi zakurrak, sarrerako gelan itzal beltz bati zaunka. Zalantza sartu zait. Beldurra eta ikara. Zer egin asmatu ezinda, guardasolontzitik eskumakila hartu eta han joan naiz neu ere antxintxika tropelaren ondortik.

Sukaldean sartu bezain pronto ikusi dut mahaira eserita eta kafe katilu ketsu bati itsuki begira. Zakurren zalapartari erreparatu ere egin gabe, neuri begira jarri eta perlazko irrifarra egin dit, beltz guztiek egin ohi duten bezala eta nor naizen galdegin baino lehen. Hitzegiteko moduan beste nonbaiteko doinua nahastu zaio zuberera zaharrari. Ala-

Lorik egin ezinik

baina, galderak neuk egiten ditudala erantzun diot, neu naizela hilabete honetan gazteluko arduradun eta zaintzaile bakarra. Neri eman behar zaizkidala argipide guztiak eta ez beste inori.

Are zuriagoak egin zaizkio hortzak algarak irrifarrari irabazi dionean. Berehala ezagutu dut. Abdullah zen, Abbadiak Etiopiatik ekarritako jopu, esklabo eta zerbitzaria. Sarrean bertan egurrezko irudi bat dago bere itxuran egina, goiko solairuetarako eskailerak argitzen dituen farolari eusten. Zakurrak isilarazi ostean, zer egiten duen galdegin diot, bere ondoan esertzera ausartu gabe.

Ehun urte baino gehiago darabaina esan dit, kafea nola hartu asmatu ezinik. Usainik ere ez zaiola iristen eta beste nekerik eta desiorik

ez daukala berak, kafearen gustua berriz ere zintzurrean behera somatzea izan ezean. Bera bezalako mamuei, ordea, ez zaiela zilegi bizitzan gehien maite zutena berriro bizitzetik. Eta horiek esanda, kafean galdu dit berriro begiak, isil-isilik. Halaxe egon gara luze, bera ezer esateko bategere asmorik gabe eta ni nondik hasi asmatu ezinik. Halako batean, hala ere, hasi naiz hariaren mutur batetik tiratzen eta erromantikoaren garaiko mamuak euren sorlekuetan bakarrik agertzen direla esan diot. Berak Etiopian edo Eritrean behar lukeela egon, alegia, Abbadian orde.

Esklaboak nagusiaren ondoan duela aberria erantzun dit eta bera beti egongo dela Antoine nagusiarekin, baita denborak finitzen direnean ere.

— Abbadiakoaren mamua ere hemen al dabil, bada?— galdetu diot.

— Non bestela?— izan da erantzuna.

Harekin egon nahi dudala esan diot. Halako gizona ezagutzeko aukerari ezin zaiola joaten utzi inola. Abdullah, ordea, hotz geratu da nire eskaerarekin eta duela berrogeita hamar urte ere horixe bera eskatu ziotela, erantzun dit, Alemaniako Reich-aren koartela gazteluan ezarri zutenek. Ez duela gordetzen orduko hartatik batera orotzapen onik. Gainera, erabaki hori ezin duela hartu ez berak eta ez nik. Antoine Abbadiakoak berak erabakitzen duela, eta ez beste inork, noren aurrean agertu eta norekin hitzegin.

Kafe antosinak kea galdu ahala, alde egin du Abdullahk sukaldetik, nik ez dakit zein atetatik.

hasier.etxebe@wanadoo.fr